



2014KO AZAROAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel eta Milagros Madrazo Rada.

Urtzi Iruin Arruti eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertarutzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du 2015eko aurrekontuaren proposamena erabat osatu gabe dagoela eta hori horrela, puntu hori eta berari lotutako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren puntua hurrengo bilkurarako uzten direla.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko urriaren 30an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KALE BERRI BATI IZENA EMATEA.-

Lazkaoko hirigintza planeamenduaren garapenaren barruan kale berri bat sortu da. Kale hau Arau Subsidiarioen 6 Hirigintza Jarduketa Arean -Iturgaitzaga- kokatzen da. Hau honela izanda kale berri horri izena ematea dagokio eta Hirigintza Obra eta Zerbitzuen batzordeak kale horri Iturrialdea izena ematea proposatzen du.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga- guneko kale berri horri Iturrialdea izena ematea onartzen du.



IV.- 2014-2017 URTEETARAKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, 2014-2017 urteetarako euskara sustatzeko ekintza plana aurkeztu du bere onarpenerako.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2014-2017 urteetarako euskara sustatzeko ekintza plan hau, bere espedientean dagoena, onartzea erabakitzen du.

V.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.-

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak, aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzeari baldintzatuta beti ere.

Hau honela izanda 2015-2019 epealdirako diru laguntzen udal strategi plan dokumentua prestatu da eta Ogasun eta Pertsonal Batzordetik bere onarpenera aurkezten da osoko bilkura honetara.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du plana estrategiko hau diru laguntzena dela baina ogasun batzordean esan zuen bezala, bestea ere egin beharra dagoela eta ona izango litzakela iruditzen zaiola hurrengo legegintzaldi hasieran edo izango baldin bada ere, hori egitea.

Alkateak baietz erantzuten dio.

Eta gaia aztertu ondoren, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bere espedientean dagoen 2015-2019 epealdirako diru laguntzen udal plan estrategiko hau, onartzea erabakitzen du.

VI.- "EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA" BANDEROLAREN EPAIAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Eskubide guztien jabe Euskal Preso eta Iheslariak ETXERA!

Orain hiru urte, Lazkaoko preso politikoen senideek egindako eskakizunarekin bat eginez, Lazkaoko Udalbatzak gehiengo osoz, Euskal Preso eta iheslariak etxera aldarrikatzen duen ikurra ipini zuen.

Urquijo buru duen Espainiako delegaritzak, hau ezartzearen aurka jarritako salaketari, Lazkaoko Udalak hainbat helegite ipini ostean, espainiar "justiziaren" behin betiko epaiak, ikur hau kentzera behartzen du Udala.

Epai hau ez betetzeak ekarriko lituzkeen ondorioak aztertuta eta aldarri hau jartzeko eskaera egin zuten Lazkaoko preso politikoen senitartekoekin bildu ostean, Udal gobernuak ikurra kentzeko erabakia hartu du.



Egoera honen aurrean, Udal batzar honetan onartua izan dadin, honako hau adierazten da:

- Lazkaotarren gehiengoak, aldarrikapen honekin bat egiten duelarik, espainiar gobernuaren mehatxu eta errespetu eza moduan ulertzen da epai hau.
- Euskal Herriak bizi duen egoera politiko berri honetan, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen urraketa oro, Lazkao eta bertako herritarron aurkako eraso modura ulertzen da.
- Espainiar gobernuari, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenen aurka salaketak ipini eta gatazka areagotu ordez, bake bidean pausoak eman ditzala eta espetxe politika aldatzeko exijitzen dio Udal honek.

Aldi berean:

- Udal honek, beste behin, elkartasuna adierazten die Euskal Preso eta Iheslari politiko, beraien senitarteko eta adiskideei, eta orohar, espetxe politika kriminal hau bere azalean pairatzen duen orori.
- Orain arte bezala, lazkaotarrak, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekimenetan parte har dezaten gonbidatzen ditu, baita, euren etxeetan ikur hau ipini eta aldarrikapena zabaltzera.
- Udal honek, Euskal Preso eta Iheslari politikoen eskubideen aldeko aldarria zabaltzeko burutzen diren ekimenei babesa emateko konpromisoa hartzen du. Bereziki, urtero legez, urte hasieran aldarrikapen honekin Bilbon egiten den manifestaldi nazionalarekin bat egin eta bertara joateko deia burutzen du, horretarako, eskura jarriko dituelarik dituen baliabideak."

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mozioari ezezkoa emango diotela eta hau hiru arrazoiengatik: bat, jartzeko unean ezezkoa botatu zutela; bi, Lazkaoko Udalak honi buruz hainbat helegite jarri dituela eta hauei buruz ez zaiela informatu; eta hiru, alderdien arteko elkarrizketak sustatzeko ez dela ezer egin.

Alkateak erantzuten dio lehenengoari dagokionez baietz horrela dela eta hori bere errua izan dela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du arrazoiak ulertzen dituela baina mozioari ezezkoa emateko nahiko arrazoi ez zaizkiola iruditzen, behar bada abstentzioa ulertuko lukeela.

Honen ondoren, gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 6 boto (Bildu) eta aurkako 4 botoz mozia onartu egiten du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du pentsatu nahi duela Sasieta itxi egiten dela eta horrek zer inplikazio dauzkan jakin nahiko lukeela galdetzen du.



Alkateak galdetutakoari erantzun egiten dio.

Une honetan Urkola zinegotzia (EAJ) bertaratu da.

Jendartetik pertsona batek euskal preso politikoen egoeraren inguruko bere iritzia ematen du Estensoro zinegotziari zuzentzen zaio.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esan beharrekoak esan dituela erantzuten dio.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta bat direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]